

UDALBURUA
Gentza Alamillo

2018KO OTSAILAREN 22AN EGINIKO OHIKO OSOKO
BILKURAREN AKTA

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo
José Antonio Bartolomé
Montse Angulo
Susana Martín
Josu Artetxe
Lauren Uria
Esteban Hernando
Nerea Goti
Iraida Saenz de Lafuente

Arespalditzan, udaletxeko bilkura-aretoan, bi mila eta hemezortziko otsailaren hogeita bian, hemezortziak direnean, udalbatza osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da mahaiburua, eta albo batean aipatutako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

BERTARATU EZ

DIRENAK:

Iratxe Parro

IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak ongietorria eman die osoko bilkurako guztiei, eta besterik aipatu gabe eguneko aztergaien zerrendako gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

1º.- Onartzea, hala badagokio, 2018ko urtarrilaren 25ean eginiko ohiko osoko bilkuraren akta.

Iraida andreak (Aiara batuz) aipatu du aurreko bilkuran eskatu zuela botoa aitortzen duen dekretuaren deskribapena zuzen zedila eta jar zedila eskuordetza zinegotzitik zinegotzira egiten dela.

Ikusi da aktan ez dela aldatu. Idazkariak gehitu du aldatuko dela.

2º.- Erabakitzea, hala badagokio, espediente administratibo bat hastea Aiara eta Amurrio udalerrietako mugaketari dagokion zedarril-lerroa aitortzeko, Olabazar kontzeju-barrutian.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza osoko kideek aho batez onetsi dute.

Horrenbestez

IKUSI DA.- Amurrio eta Aiara udalerrien mugaketa, 1889ko eta 1927ko mugaketa- eta zedarritze-aktak eta Institutu Geografiko eta Katastralaren dokumentazio gehigarria.

IKUSI DA.- 2017ko ekainean AIALUR SL ingeniari-entresak Amurrio eta Aiaren udalerriaren muga-tartea, “La casa de los Hierros”-eko tartean, berrikusteari buruz egindako txosten teknikoa.

ONDORIOZ.- Txosten teknikoak dioen moduan, Arabako Foru Aldundiaren kartografia ofizialean jasotako udalerriaren mugaren eta 1889an bi udalerriek onartutako mugatzearen arteko aldeak direla-eta idatzi da. Lehena, Geografia Institutu Nazionalaren aktetan jasotako bera da, eta, bigarrena, berriz, zedarril juridikozionalak jarri zirenekoaren arabera; azken hori da bi udalek zuzentzat dutena.

Hori guztia akta aztertzeke, bi udalerriek onartuko duten lerro bat proposatzeko eta bi udalerriek eta Foru Aldundiari jakinarazteko, katastroan eta dagokion lekuan erregularizatu dadin.

ONDORIOZ.- 1889ko aktak zehaztutako ibilbidea ia ibilbide osoa da, eta segitzeko erraza den elementu fisiko batean oinarritzen da, karkaba, eta muga eteten deneko zatiak argazki zaharrei begiratuta zehatz litezke.

Gainera, ibilbidearen zatirik handienez, jurisdikzio-lerroa bat dator Amurrioko edo/eta mendi publikoen jabetza-mugekin, mugatuak eta zedarrituak dauden mendiak, eta bai zedarri horiek eta bai jurisdikzionaltzat hartutakoek babesten dute, hein handi batean, aipatutako karkabak zehaztutako lerroa.

Amurrioko Udalak 1962an lerro jurisdikzionala markatzeko ezarritako zedarriak badirudi bat datozela 1889ko aktan zehaztutakoekin, oker gutxi batzuk kenduta.

ONDORIOZ.- 1927ko aktan zedarri gutxiago deskribatzen dira, eta horrek lerroa soilteza dakar, ondorioz, Larrabetik Sagarribaira eta Saerinetik Markijanarako zonetan muga oso aldatuta dago. Horren eraginez, kartografia ofizialean jasotako muga jurisdikzionala oso urrun dago bi udalerriek mugatzat hartzen dutenetik, zeinak ia guztiz bat egiten duen lursailaren jabetzarekin.

Bestalde, badirudi Arabako Foru Aldundiaren kartografia ofizialean jasotako muga jurisdikzionalak zenbait oker dituela 1927ko aktarekin alderatuta.

ONDORIOZ.- Amurrioko Udalarekin elkarrizketak izan dira, eta txosten tekniko bat egitea adostu da; txosten horrek 1889. urtean zehaztutako lerroaren zuinketarekin osatutako lerro bat proposatzen du, zedarritze-akats txikiak konponduta eta ez dauden zedarrien zuinketa eginda, bi zedarri osagarri gehituta, lerroa segitzen laguntzeko, eta, hala, trazadura guztia karkabak zehaztuko du, Lejarzon eta Markijanan, hurrenez hurren.

AINTZAT HARTU DA.- Toki Erakundeen Biztanleria eta Lurralde Mugaketarako Araudiaren (irailaren 11koa, 1690/86 EDz onartutakoa) 17. artikulua eta hurrengoek xedatutakoa, egungo idazketaren arabera.

Udalbatzak, 2018ko otsailaren 22ko osoko bilkuran dauden udalbatzako kide guztien (udalbatza osatzen duten 11etatik 10ek) aho batez onartuta, **HAU ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Espediente administratibo bat hastea Aiara eta Amurrio udalerrietako mugaketari dagokion zedarri-lerroa aitortzeko, Olabazar kontzeju-barrutian, 1889ko mugatze- eta zedarritze- aktako 46. eta 63. bitarteko zedarrietan lerro zehaztu baten zuinkatuta eta zedarritze-okerrak txikiak zuzentzea eta ez dauden zedarriak zuinkatzea, bi zedarri osagarri gehituta Lejarzo eta Markijana inguruan, hurrenez hurren, lerroari segitzea erraztuko dutenak, eta, hala, karkabak zehaztuko du trazadura guztia.

Espediente honek xede duen lerro jurisdikzional osoaren inguruko elkarrekin egindako akta adostu bat egingo balitz, bi udalbatzek aurrez onartuta, Arabako Foru Aldundi txit gorenari eta Geografia Institutu Nazionalari bidaliko zaie, katastroa eta kartografia ofiziala molda dezaten adostutako akta horren arabera.

Bestela, punturen batean desadostasunak egongo balira, ados jarritako puntuei buruzko elkarrekin egindako akta formalizatzeari kalterik egin gabe, akta bereizita egingo da, eta desadostasun-puntuen inguruan alde bakoitzak duen iritzia justifikatzeko datuak, aurrekariak eta beharrezko xehetasunak adieraziko dira, eta beharrezko diren legezko izapideekin jarraituko da espedientea osatzen.

Bigarrena.- Lerro jurisdikzionala aztertzeke operazioaren egiaztatzean AIARAKO Udal txit gorenaren ordezkatuko duen batzordea izendatzea; honako hauek osatuko dute: alkateak berak, edo haren ordezkoak, José Antonio Bartolomé Pesquera jaunak (ordezkoa: Iñigo Pinedo Vadillo jauna), Josu Artetxe Arana eta Esteban Hernando Landa jaunek (ordezkoa: Lauren Uria Peña jauna) eta Iratxe Parro Uzquiano andreak (ordezkoa: Iraida Saenz de Lafuente Blanco andrea) eta udal idazkariak edo haren ordezko izango den funtzionarioak, ekitaldiaren fedea emango duena.

E. M. L. jauna gonbidatzea zedarriak aztertzeke ekitaldira, Olabezarko Administrazio Batzarreko burua den heinean, baita V. G. M. jauna ere, beren adinagatik eta egiaztatutako zuhertasunagatik, justifika baitezakete non egon ziren zedarriak edo banaketa-seinaleak. Dagokionean jakinaraziko zaie akta jasoko den lekua, eguna eta ordua.

J. A. N. M. mendi-ingeniarria izendatzea perito, batzordeari lagun diezaion akta jasotzen, aurrez espedientea aztertuta.

2017ko ekainean aipatutako peritu J. A. N. M. jaunak egindako txosten teknikoa espedientean sartzea.

Hirugarrena.- Amurrioko Udalarri honako hau jakinaraztea, eskatuz has dadila dagokion udal-batzordea sortzen, eta jar dadila harremanetan Aiarako batzordeko ordezkariekin, ekitaldia egiteko egun bat adosteko.

Era berean, Olabezarko Administrazio Batzordeari jakinaraztea.

3º.- Erabakitzea, bidezkoa bada, udaletxe bakoiko "Euskal Presoak Euskal Herrira" kartela kentzea eta Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzien 3. epaitegiko administrazioarekiko auzi errekurtsuaren harira epaitegiari jakinaraztea, Gobernu Ordezkaritzak aipatutako kartela kentzeke egindako eskaera atzera botatzeagatik.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Bertaratutako udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Horrenbestez, honakoa

IKUSI DA.- 2018ko urtarrilaren 26an Udal honetara Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzien 3. epaitegiko administrazioarekiko errekurtsu bat iritsi zela, Estatuaren Administrazio Orokorrak (EAEko Gobernu Ordezkaritzak) Udal honen aurka jarritakoa ustez "Euskal Presoak Euskal Herrira" zioen kartel bat udaletxe honetako Udal Bulegoen bakoitik kentzeke eskaera ustez atzera botatzeagatik.

IKUSI DA.- Hirigintza, Obra, Zerbitzua eta Ingurumenaren Informazio Batzordearen aldeko irizpena, 2018ko otsailaren 13koa.

Udalbatzak, aho batez, honako hau **ERABAKI DU**:

Lehenengoa.- Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernu Ordezkaritzak egindako eskaera betetzea eta "Euskal Presoak Euskal Herrira" dioen kartela kentzea Aiarako Udalaren udal-bulegoak dauden eraikineko bakoitik.

Bigarrena.- Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzien 3. epaitegiari jakinaraztea erabaki hau eta eskatzea 20/2018. administrazioarekiko prozedura arrunta eteteko, Administrazioarekiko

Jurisdikzioko uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 76. artikulua kontuan hartuz, auziak prozesutik kanpo betetzeagatik, hori guztia kostu-zigorrik gabe.

4º.- Onartzea, bidezkoa bada, Aiarako Udalak parte hartzea Aiarako Kuadrillak erakunde publiko edo/eta pribatuak sustatutako turismoaren inguruko diru-laguntza deialdietara aurkeztutako proiektu eta egitasmoak diseinatzen eta gauzatzen, eta konpromisoa hartzea haietatik eratorritako gastuetan parte hartzeko.

Iraida andreak (Aiara Batuz) esan du aintzat hartu denez Kuadrillaren barruan onartu aurretik edozein ekinaldi udal honetatik pasatzeko proposamena, jakiteko eta aztertzeko, bere taldeko botoa baiezkoa izango dela.

Josu jaunak (Bildu) dio erabakiak ez direla horrela hartzen; hobeto koordinatu behar dira denborak, dirua eskatzen ari baita zertarako jakin gabe. Horrek guztiak zerikusia du iraganean gaizki egindako kudeaketarekin; aldez aurretik landu beharko litzatekeen, eta, horrela, ez litzaioke Kuadrillari nahi duena egiteko baimena eman beharko.

Iraida andreak (Aiara Batuz) dio ez duela uste hori egiten ari denik.

Gentza jaunak ere (EAJ) esan du ez dela hori proposatzen ari direna.

Josu jaunak (Bildu) gehitu du bere taldeak oraindik ere pentsatzen duela gai labaina dela Kuadrillari dagokiolako erantzukizuna. Uste dute turismoa, ez dela funtzionatzen ari, eskualde gisa planteatuta, eta ez duela funtzionatuko. Zenbait udal, hala nola Amurrio, beren kabu ari dira. Badirudi udal bakoitzak bereari begiratuko diola, eta, beraz, ez dirudi ideia oso ideia ona denik Kuadrilla udalen interesekin nahastea. Josu jaunak dio hori aspalditik landu behar zela, eta uste dutela Kuadrilla izango dela diru-laguntzetako dirua erabiliko duena, eta turismo-politika guztia liburuxka batzuk eta antolatutako bisita jakin batzuk, hala nola Kexaanara, besterik ez dela izango. Horregatik guztiagatik, Josu jaunak esan du taldea abstenitu egingo dela.

Inork ez du horri buruzko ezer esan; beraz, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 7 (5 EAJ+ 2 Aiara Batuz)

Abstentzioak: 4 Bildu

Horrenbestez,

IKUSI DA.- 2003tik hona Aiarako eskualdeko turismoa AIARATUR elkarteak kudeatzen zuen, parte-hartze publiko eta pribatuarekin.

IKUSI DA.- 2017ko abenduaren 11ko AIARATUReko Batzorde Orokorrek hala erabakita, elkarte desegitea erabaki zen.

IKUSI DA.- Ondorioz, Aiarako Udalako bere kabuz egin beharko ditu turismoa bultzatzeko jarduerak (turismo-bulegoa, turismo-ekitaldiak, publizitatea, sustapena...).

AINZAT HARTU DA.- Aurrekoa gorabehera, beharrezkoa ikusten da eskualdeko beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin elkartzea, turismoa bultzatzeko.

AINTZAT HARTU DA.- Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren deialdiek, baita Arabako Foru Aldundiaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapen Sailarenek ere, ondo baloratzen dituzte, eta are puntuazio eta finantzazio handiagoarekin zenbaitetan, eskariak eskualde mailan egitea.

Udalbatza Osoak, gehiengo osoz, HAU ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Aiarako Udalak parte hartzea Aiarako Kuadrillak erakunde publiko edo/eta pribatuek sustatutako turismoaren inguruko diru-laguntza deialdietara aurkeztutako proiektu eta egitasmoak diseinatzen eta gauzaten, betiere proiektu eta egitasmo horiek udalbatzak aho batez onartu baditu eta haien berri badu Kuadrilla barruan onartu aurretik.

Bigarrena.- Konpromisoa hartzea aipatutako erakunde horiek diruz lagundutako proiektu eta egitasmo horietan parte hartzeagatik eratorritako gastuak onartzeko, kasu bakoitzean aplikagarri den proportzioan, aldeztu aurretik Aiarako Kuadrillak eskatzen badu.

- Eguneko gaien zerrendako hurrengo puntuekin jarraitu aurretik, alkate-udalburuak proposatzen du beste puntu bat gehitzea presako prozeduraren bidez, ezin baita hurrengo udalbatzarako utzi, eguna pasatuko litzateke-eta. Martxoaren 8rako adierazpen instituzionalaren ingurukoa da sartu beharreko puntua.

Lehenik, puntua eguneko gaien zerrendan sartzea presaz onartzera pasatu dira, eta aho batez onartu dute zinegotziek. Jarraian, puntua eztabaidatu dute:

5º.- Martxoaren 8ko adierazpen instituzionala.

Gentza jaunak (EAJ) esan du testu bat adostu dela azkeneko bileraren ondoren, eta horixe bidali zaiela.

Nerea andreak (Bildu) dio adierazpenean jaso dadila eta hala geratu dadila idatzita dei egiten dutela mugimendu feministak 70 herrialdetan baino gehiagotan antolatu duen greba-deialdira, greba honek arrazoi bat baitu: emakumeengan oso eragin txarra duen sistema sexista, kapitalista eta heteropatriarkala salatzea.

Gentza jaunak (EAJ) erantzun du adierazpenean hitz egiten dela jadanik greba-deialdiaz, eta berriz jartzea errepikakorra litzakeela. Adierazpen honekin argi geratzen dela Udalak bat egiten duela adierazpenean egiten den proposamenarekin, eta herritarrei dei egiten zaiela ekimen guztietan parte hartzeko, besteak beste, greban.

Nerea andreak (Bildu) gehitu du adierazpenean jasota gelditzen dela greba-deialdi bat dagoela, baina xedapenezko zatian ez dela esplizitatzen greba-deialdi horrekin bat egiten dela.

Aho batez erabaki da adierazpenaren azken parrafoari honako hau gehitzea:

"(...) bat eginez emakumeen nazioarteko grebarekin, 70 herrialde baino gehiagotan konbokatu dena."

Aipatutako aldaketa horiekin, kontua bozkatzera jo da, eta zinegotziek aho batez onartu dute, eta, ondorioz, mozio hau da onartutakoa:

"2018ko MARTXOAREN 8rako ADIERAZPENA

Zer gertatzen da emakumeek ez badute zaintzen, ez kontsumitzen, ez lan egiten, ezta parte hartzen ere?

Hausnarketa horrexek eraginda, iaz mugimendu feministak emakumeen nazioarteko greba-deialdi bat egitea erabaki zuen, non eta 70 herrialdetan baino gehiagotan; aurten, 2018an, “Emakumeok planto. Nosotras paramos” leloaren pean errepikatuko da. Grebaren xedea da emakumeen lanak gure gizartearen duen inpaktua ikusaraztea eta lan hori aintzat har dadila eskatzea.

Gure gizartearen ongizatea ezinezkoa litzateke bizitzari eusteko ezinbesteko jarduerak egingo ez balira, hala nola, pertsonak zaindu (haurrak, adinekoak, mendekoak...) edo etxeko lanak egin. Lan horietako gehienek ez dute ordainsaririk, eta batez ere emakumeek egiten dituzte. Emakumeen ekarpenik gabe, gizartearen geratu egingo litzateke.

Emakumeen lanaren zatirik handiena ez da ikusten eta ez da kontabilizatzen. Horrek esan nahi du etxeetan ekoiztutako ondasunen eta aberastasunaren balioa gutxietsi egiten dela, nagusiki emakumeek egiten dituzten zeregin hauen orduak eta ekarpen ekonomikoa ukatu eta ikusezin bihurtzen direla, eta zeregin horiek zaintza, osasun, giza eta babes arloari egiten dioten aurrezpen sozial handia ere ikusezin bihurtzen dela.

Lan-merkatuaren barruan eta kanpoan eskainitako orduak kontuan izanez gero, emakumeek gure gizarteko lanaren %56 egiten dute, baina baita ordainsaririk gabeko lanaren %74 ere. Gainera, feminizatutako lan asko, batez ere emakumeek egiten dituzten lan asko, enplegu prekarizatukoak dira edo lan-merkatuko ezkutuko ekonomiakoak. Sektore horretan, gainera, migratutako emakume ugari enplegatzen dira, eta beroriek jatorrizko inguruneetan beren haurrak beste emakume batzuen zaintzapean utzi behar izan dituzte; hala, zaintza-kate globalak sortzen dira.

Eta egiten dituzten zeregin ez harantzagoko kontua da; izan ere, emakumeek zaintzan eta etxeko lanetan igarotzen duten denboraren ondorioz, gizonen denbora gehiago dute beren karrera profesionala eta lan-munduko karrera garatzeko, edo aisiako edozein jarduerara sozial egiteko, emakumeek jarduerara horietan sartzeko zailtasunak izan arren.

Denboraren erabilera desberdin hau traba handia da berdintasuna lortzeko, eta gizon eta emakumeei buruzko estereotipoak betiketzeaz gain, generoaren ondoriozko erantzukizunak uztartzeko egiturazko oztopo ere bada, besteak beste.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da gizarteak aitortzea zaintza-lana ezinbestekoa dela bizitzaren iraunkortasunerako; zaintzen inguruko jendarte mailako antolakuntza berri bat babestu beharra dago zeregin hori beste modu batera hornitzeko, gizonen erantzunkidetasuna sustatu beharra dago, gizartearen antolatze modu honen ondorioz erabakimen- eta botere-guneetan emakumeen talentuaren galera dagoela ikusarazi behar da, antolakuntza- eta enpresa-kultura berdintasunarekin lerrokatu behar dira, eta bizitza pertsonalaren eta laneko bizitzaren kontziliazioa sustatuko duten zerbitzu publikoak indartu behar dira.

Egoera honetaz OHARTZEN DENEZ, Aiarako Udalak honako ekintza hauek gauzatzeko konpromisoa hartu du, denak Aiarako Kuadrillako Berdintasun Planean jasota daudenak 2018ko plangintzan:

- Sentsibilizazio eta trebakuntza-programak garatuko dituela, zaintzan eta etxeko lanetan gizonen erantzunkidetasuna sustatzeko eta erabakitze guneak emakumeekin partekatze.

- Bere eskumenen alorrean lagunduko duela zaintza babesteko baliabideak eta zerbitzu publikoak garatu eta finkatu daitezzen, eta zaintzen arloan erantzunkidetasun sozialerako komunitateko estrategien artikulazioa sustatu dadin.
- Udaleko politikak genero-ikuspegiarekin garatuko dituela.
- Balioen transmisioa azpimarratuko duela, berdintasunezko gizartea lortzeko kultura-aldaketak susta daitezzen.

Azkenik, Aiarako Udalak bat egingo du martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta antolatu eta deituko diren ekitaldi eta ekintzekin, eta dei egiten die herritarrei era aktiboan parte hartzera mugimendu feministak Aiaraldean antolatutako Emakumeok planto kanpainan, bat eginez emakumeen nazioarteko grebarekin, 70 herrialde baino gehiagotan konbokatu dena.”

➤ **Eguneko gaien zerrendako hurrengo puntuekin jarraitu aurretik, alkate-udalburuak sartzeko beste puntu bat proposatzeko du osoko bilkurako gaien zerrendatik kanpo, Aldundiaren eta Kuadrillaren artean oinarrizko gizarte-zerbitzuak emateko lankidetzaz hitzarmen baten zirriborroa onartzearekin lotutakoa.**

Eztabaidara eta bozkatzera pasatu aurretik, presaz bozkatu da puntu hori osoko bilkurako gaien zerrendan sartzea, eta hau izan da emaitza:

Aldeko botoak: 7 (5 EAJ+ 2 Aiara Batuz)

Abstentzioak: 4 Bildu

Ondorioz, puntu hau eztabaidatu eta bozkatzera pasatu dira:

6º.- Onartzea, bidezkoa bada, Arabako Foru Aldundiaren, Aiarako Udalaren eta Aiarako Kuadrillaren artean oinarrizko gizarte-zerbitzuak emateko lankidetzaz hitzarmenaren zirriborroa.

Josu jaunak (Bildu) esan du hitzarmen hori oso azkar iritsi dela, eta ia eztabaidatu gabe osoko bilkuran bozkatuko dutela. Badakite Okondon atzo iritsi zaiela hitzarmena osoko bilkuran bozkatzeko. Artziniega Kuadrillako Gobernu Batzordean egon zen, eta onartzearen kontra bozkatu zuen aztertzeo denborarik gabe iritsi zelako. Beraz, informazioa falta da horren inguruan. Batzordean ere gainetik aipatu zen. Ez dakigu zergatik egiten den zonen arteko azpizatiketa hori.

Gentza jaunak (EAJ) erantzun du gizarte-zerbitzuen mapan ondorioztatzen zela, langileen ratioei dagokienez, hiru udaletan (Artziniega, Aiara eta Okondo) zela beharrezko langile bat gehiago hartzea lanaldi-erdian. Horregatik, Aldundiak zirriborro hau egin du eta zonaka azpizatikatu, langileak lanaldi-erdi hori Artziniegan eta Okondon egin dezan.

Josu jaunak (Bildu) esan du eskumena udalek dutenez udalak antolatu beharko lirakeela, eta arraroa dela hitzarmena Kuadrillarekin izatea. Aldundiak pasatzen utzi du denbora, orain zirriborroa bidaltzen digute, eta presa-presaz onartu beharra dago, seguru asko Batzar Nagusietan agerraldi bat egon zelako gai horri buruz.

Gentza jaunak (EAJ) erantzun du Arabako udal guztiek duten hitzarmen berdina dela.

Josu jaunak (Bildu) uste du gaizki egiten ari direla: ez zaiela uzten teknikariei antolatzen beharren eta arazoan arabera. Banaketa bat proposatzen da teorian, eta, beharbada, ez da eraginkorra. Hori denboraz landu balitz, gizarte-langilea, laguntzailea eta batzordeko zinegotziak elkartuko zirratekeen, gaia lantzeko eta zerbitzua antolatzeko aukera egongo litzatekeen.

Gentza jaunak (EAJ) erantzun du gobernu-taldea gizarte-langilearekin bildu dela, eta ondo iruditu zaiola, bera Aiarako Udaleko langilea denez, berak udal horrentzako zerbitzua ematea, eta, Artziniegari eta Okondori dagokiona egiteko, berriz, beste langileak bere lanaldi-erdia balia dezala bi udal horientzat zerbitzuaren beharrianak betetzeko.

Iraida andreak (Aiara Batuz) gehitu du gizarte-langileak denbora asko daramala errefortzu eske lan-karga handiegia duelako. Aldundiak lan-kargen mapa bat egin du, eta ondorioztatu du hiru udaletako herritarrentzat (Artziniega, Aiara eta Okondo) beharrezkoa dela beste langile bat lanaldi-erdiz jardungo duena, eta Aldundiak, hitzarmen horren bidez, ahalegin hori erregulatu nahi du. Gehitu du zentzuzkoa dela Cecilio udaletxean egotea, Airako funtzionarioa baita.

Gentza jaunak (EAJ) gehitu du asko direla 2017an oinarrizko gizarte-zerbitzuak kudeatzeko egon diren arazoak, diru-laguntza guztiak Udalak ematen baitzituen, baina gizarte-zerbitzuen laguntzailearen soldata Kuadrillak ordaintzen zuen, eta horrek kontabilitateko arazo handiak ekarri ditu. 2018rako proposatutako hitzarmen honekin konpondu egiten da hori.

Nera andreak (Bildu) esan du azalpen horiek guztiak eman zitzaketela batzarrean, eta gizarte-langileak kontua azaldu, eta azter zitekeela ea bi teknikarien arteko banaketa orduen edo kasuen arabera egin behar zen. Gai hori denboraz aztertu behar zen, eta gizarte-zerbitzuetako langileei entzun.

Josu jaunak (Bildu) gehitu du zalantzak dituela hitzarmen honekin, ez dena aztertu denbora faltagatik, eta gauza bera gertatu dela Artziniegan eta Okondon. Eskatzen dute denboraz aztertzeko eta lantzeko, ez baitu zentzurik orain hain azkar iristea 2017ko uztailetik itunduta bazegoen.

Gentza jaunak (EAJ) erantzun du harrigarri zaiola orain esatea udalen hitzarmena dela, hitzarmen hauek 2003tik urtez urte berri badiira. Lanaldi-erdi hori beteko duen pertsonari dagokionez, Gizarte Ongizaterako Institutuak lan-poltsa bat du, eta hara joko da kontratazioa egiteko.

Inork ez du horri buruzko ezer esan; beraz, gaiari buruzko bozketa egin da eta hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 7 (5 EAJ+ 2 Aiara Batuz)

Abstentzioak: 4 BILDU

Horrenbestez, honakoa

IKUSI DA.- Aiarako Udalak eta Arabako Foru Aldundiak 2003tik egiten dutela lan elkarrekin oinarrizko gizarte-zerbitzuak kudeatzen.

IKUSI DA.- Kontseiluaren 1/2010 Foru Dekretuaren bidez aldatu egin zen 66/2002 Foru Dekretua, eta beraz Aiarako Kuadrillako zonifikazioa aldatu zen Gizarte Zerbitzuei dagokienez.

IKUSI DA.- 2017an erabaki zen oinarrizko gizarte-zerbitzuak indartzea, administrazio-langileak jarrita.

AINTZAT HARTU DA.- 2017ko ekitaldian Arabako landa-guneko oinarrizko zerbitzuetako lan-kargen inguruko ikerketa bat egin zen, eta ondorioztatu zen A zonan (Artziniega, Aiara eta Okondo) beharrezkoa zela zerbitzua indartzea lanaldi-erdiz jardungo zuen pertsona kualifikatu batekin (Gizarte Lana-Gizarte Laguntza diplomatura).

AINTZAT HARTU DA.- Langile guztien kudeaketa Aiarako Udalaren eta Aiarako Kuadrillaren artean egingo da.

AINTZAT HARTU DA.- Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Foru Institutuak bidalitako hitzarmenaren zirriborroa.

Udalbatza osoak, gehiengo osoz, **HAU ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onartzea Arabako Foru Aldundiaren, Aiarako Udalaren eta Aiarako Kuadrillaren artean oinarrizko gizarte-zerbitzuak emateko lankidetzaz hitzarmenaren zirriborroa.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari baimena ematea dagokion dokumentua sinatzeko.

Hirugarrena.- Akordio honen berri ematea Arabako Foru Aldundi txit gorenari eta Aiarako Kuadrillari, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzen.

7º.- Alkatetza Dekretu hauen berri ematea:

- **Erref. - 32/18.- L.U.S.-** Segurtasuneko prebentziozko neurriak presaz hartzeko eskatzea, iparraldeko fatxadaren izkina erori ondoren, Zuazako bide publikoarekin mugakide.
- **Erref. - 33/18.- S.R.U.-** Aparkatzeko txartela berritzea.
- **Erref. - 34/18.- Murgako Administrazio Batzarra.-** “Murgako pilotalekua egokitzea, zimendatzearen gainean kareharrizko harmailak jarrita” lanak bukatzeko luzapena ematea.
- **Erref. - 35/18.- J.M.P.E.-** Kanpoko aroztegia etxebizitza bihurtzeko obra-baimenaren espedientearekin lotuta dokumentazioa zabaltzeko eskatuz.
- **Erref. - 36/18.- Viesgo Energía, S.L.-** 2017ko laugarren hiruhilekoan jabetza publikoa okupatzeagatik tasa likidatzea.
- **Erref. - 37/18.- Construcciones Basaorte, SL.-** Zuazako lursail bateko sastraka garbitzeko, kimatzeko eta landareak mozteko baimenik ez dela behar jakinaraztea.
- **Erref. - 38/18.- Orixe Comercial S.L.-** Zuazan bi bizitzako bi eraikin egiteko Obrak Hasteko Udal Baimenarekin lotutako dokumentazioa zabaltzeko eskatzea.
- **Erref. - 39/18.- Orixe Comercial SL.-** Zuazan bi bizitzako bi eraikinen obretako eraikuntza-hondakinak egoki kudeatuko direla ziurtatzeko bermea eskatzea.
- **Erref. - 40/18.- Aiarako Kuadrilla.-** “Arespalditzako Sindikatuaren Etxe Zaharreko 3. solairuko komuna berriztatze” udal-baimena ematea
- **Erref. - 41/18.- IBE, PROMO SL.-** Murgan kokatutako berriztutako eraikinari (6 etxebizitza izango dituen) lehenengoz okupatzeko udal-lizentzia ematea.
- **Erref. - 42/18.- M.I.C.A.-** “Makina-biltegi pabiloi bat, nekazaritza eta abeltzaintza ustiatzeko” obretako eraikuntza-hondakinak egoki kudeatuko direla ziurtatzeko bermea eskatzea, Costeran dagoen lursail batean.<
- **Erref.-43/18. - Onestea F/2017/18 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **Erref. - 44/18.- L.M.S.-** Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia ematea.
- **Erref. -45/18.- JM.C.F.** Ibilgailuen udal-zergan hobaria ematea familia ugariaren titulua egiaztatzeagatik.
- **Erref. - 46/18.- S.G.G eta M.A.G.-** Sojon kokatutako lursail batean eraikitako bizitza bakarreko etxea lehenengoz okupatzeko lizentzia ematea.
- **Erref. - 47/18.- S.G.G eta M.A.G.-** Zaborra kudeatzeko bermea itzultzea ukatzea, itzultzeko eskatutako arauzko dokumentazioa ez aurkezteagatik.
- **Erref. - 48/18.- Llantenoko Administrazio Batzarra.-** Llantenoko lursail bateko itxiera-horma egokitze obra-baimena ematea.
- **Erref. - 49/18.- M.I.C.A.-** Costeran kokatutako lursail batean makina-biltegi pabiloi bat eraikitzeko, nekazaritza eta abeltzaintza ustiatzeko, obrak hasteko baimena eta udal-baimena.

- **Erref. - 50/18.- M.I.C.A.-** Costeran kokatutako lursailean “Nekazaritza eta abeltzaintza ustiaketa” jarduera egiteko aldez aurreko jakinarazpena.
- **Erref. - 51/18.- Maderas Zerrabe SL.-** Azaroaren 9ko 518/2017 dekretuari jarritako baztertzeko errekurtsua atzera botatzea
- **Erref. - 52/18.-** Igerilekurako sarrerak iragazgatzeko obraren II. fasearen 1. egiaztatzea onestea.
- **Erref. -53/18.- Onestea F/2018/1 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **Erref. - 54/18.- S.O.M.-** Obra-baimenari uko egitea onartzea.
- **Erref. - 55/18.- Tantirumairu Ikastola - Nafarora Oinez Fundazioa.-** 2017ko Nafarroa Oinez antolatzekeko diru-laguntza emateko dokumentazioa eskatzea.
- **Erref. - 56/18.- J.M.P.E.-** Luiaondon kokatutako etxebizitza baten kanpoko aroztegiak aldatzeko Udalaren obra-baimena ematea.
- **Erref. - 57/18.- Orixe Comercial SL.-** Zuazan kokatutako lursail batean lau etxebizitza eraikitzeko, bi bizitzako bi eraikinetan, obrak hasteko Udalaren baimena ematea.
- **Erref. - 58/18.- L.M.S.-** Aiarako Udalaren arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistroan arriskutsua izan daitekeen txakur bat erregistratzea.
- **Erref. - 59/18.- Goiener S. Koop.-** 2017ko 4. hiruhilekoan jabetza publikoa okupatzeagatiko tasa likidatzea.

Bertaratutakoak jakinaren gainean daude.

8º.- Galderak eta eskeak.

- Lauren jaunak (Bildu) esan du bere taldeak ez zekiela beste pertsona bat zegoela Zabaia Landa Garapenerako Elkartean. Gehitu du jakinarazi zezaketela.
Gentza jaunak (EAJ) erantzun du prozesu publiko bat egon zela, eta Haziko pertsona bat egon zela administraria aukeratzeko.
Lauren jaunak esan du gardenagoa zatekeela lan-poltsa bat erabiltzea.
- Esteban jaunak (Bildu) otsailaren 15eko sarrera-erregistro baten inguruan galdetu du; Kantauriko Urkidetzaren idatzi bat da, eta Retes de Llantenoko hobia garbitzeko eskatzen du. Haren zergatia galdetu du.
Gentza jaunak (EAJ) erantzun du ez dakiela arrazoia, baina uste duela izango dela Partzuergoak egoera onean hartu nahiko dituelako instalazioak. Esan beharko zaie batzarrak eskatu behar duela.
- Esteban jaunak (Bildu) esan du jakin duela arazoak egon direla Limpiezas Villar enpresarekin; langileak eta materiala faltatu direla...
Gentzak (EAJ) erantzun du konturatu dela zenbait hutsune izan direla zerbitzuetan, eta arduradun berriarekin bilerak egin dituztela pleguetan eskainitakoa bete dezatela eskatzeko. Gainera, zerbitzuaren aldizkako segimendu bat egiten ari dira.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hogueiak zirenean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezten, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hemezortziko otsailaren hogeita bian.

O. E.:
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta

Sin.: Naiara Lazpita Marcos.